

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak satellite bidezko konexioa sustatuko du estalduratik gabeko landa-eremuetan banda zabaleko Internet zerbitzua izan dezaten

*Jiménez lehendakariordea helburu horrekin bildu zen iragan astean Hispasat operadorearekin*

Lunes, 17 de octubre de 2011

Nafarroako Gobernuak satellite bidezko estaldurari bultzada berri bat ematea aztertzen ari da, Foru Erkidegoko landa-eremuetan oraindik estaldura hori ez duten Internet-eko banda zabalaren zerbitzua izan dezaten. Egoera horretan daude Nafarroako biztanleen % 0,77 (ia bost mila pertsona).

Gaur egun, Nafarroako udalerrri guztiek dute banda zabaleko Interneteko zerbitzua ADSLaren, kablearen edo WIMAX teknologiaren (irratiz) bidez. Nolanahi ere, estaldura hori udalerrri bakoitzeko biztanleria-nukleo garrantzitsueneni dagokie, eta lehen aipatutako biztanleriaren % 0,77ko portzentaje horri eragiten dion itzalgunek daude. Udalerrri horietan, Nafarroako Gobernuak [diru-laguntzak eskaintzen ditu satellite bidezko zerbitzua emateko](#), lurreko azpiegitura ezartzeak zer kostu handia duen ikusita.

Nafarroako Gobernuko lehen lehendakariorde Roberto Jiménezek Hispasat telekomunikazioen operadoreko kontseilari delegatuarekin bildu zen iragan astean, Madrilen, satellite bidez banda zabaleko estaldurarik gabeko gune horietan Internet zerbitzua izateko ahaleginean sakontzeko; kontuan hartuz gaur egungo egoera ekonomikoak ez duela uzten inbertsio eta azpiegiturak egitea arazo hori Internetera sartzeko beste bide batzuen bidez konpondu ahal izateko. Jiménez lehendakariordeak Hispasat operadorearen laguntza eskatu zuen foruaren diru-kutxari kostu txikiena eragiten dion irtenbide bat aurkitu ahal izateko.

Alde horretatik, bileraren amaieran, Jiménezek azpimarratu zuen, "landa-eremuan demokratizazioa eta ekitate digitala ezartzea bermatuko dituen irtenbide iraunkor bat aurkitzeak zer-nolako garrantzia duen. Internet lan, enpresa eta gizarteko aukera berrietan sartzeko atea da, eta landa-eremuak bertan izateko aukera izan behar du bere garapen sozial eta ekonomikorako". Ildo horretan, lehendakariordeak adierazi du, gainera, "udalerrri horietara Internet iritsita, landa- eta hiri-eremuaren arteko desberdintasuna hausten dela, eta zonaldeen artean aukeren berdintasuna finkatzeko beste urrats bat gehiago dela".